

Salda bero beroa



June Fernández

KAZETARIA
@marikazetari

Ez dut negua gustuko. Iragan azken hiru neguak Euskal Herritik urrun pasa nituen, bero bila, prakamotzetan. Aurten Bilbon nago, eguraldi txarrari aurpegi ona jartzeko asmoz, sasoi honetako plazerez gozatzen, alegia. Esku bakar batez zenbatu ditzaket: sofán manta pean egotea, kalabaza edota txanpinoi-kremak prestatzea, kallean gaztaina erreka erosi eta horiekin eskuak berotzea, eta tabernetan salda eskatzea.

Nire lagun gehienek ustez, salda edatea selebrekeria galanta da. Pentsa: poteoan joan eta *zurito*, *txikito* edo *kallixiki* bat eskatu ordez, salda ote duten galdetzen dut. Beti horrelakoa izan naiz. Alkoholdun edariak hartzen ditut, baina kantitate txikietan eta ez egunero. Batea jarri eta errondak atera baino, nire errit-mora (beti motelagoa) edatea nahiago dut. Arrazakeriaren kontrako elkarte bateko kide nintzen garaian, asanblada eta gero pote bat hartzera joan ohi ginen. Denek garagardoa edo ardoa eskatzen zuten. Nik tea. Modan jarri nuen. Urte batzuk pasa eta gero taldearen erdiak ere tea eskatzen zuen. Bati amorrua ematen zion, *urardotzen* ari garela zioen, erdi txantxetan, baina izorratzen ziola nabaritzen zitzaion. (Aitortu behar dut: *descafeinar* hitza hiztegian bilatu dut. *Descafeinar*: *urardotu*. A ze hitz egokia artikulu honetan erabiltzeko!)

Kontua da askotan sumatu dudala gutxi edateak jende asko gogaitzen duela. Gizona baldin bazara, are gehiago, alkoholak funtzio garrantzitsua baitu maskulinotasunaren eraikuntzan. Parrandan freskagarri edo zuku bat eskatzea *marikoikeria* bezala ikusten da. Nire nebak 12 urte ditu, aurrekoan jatetxe batean helduoi *txupito* batzuk oparitu zizkiguten eta berak trago bakar batean edan behar genituela esan zigun. Nik azaldu nion nahiago dudala ron ona gustura dastatzea. Ez nuen konbentzitu.

Ez dut esan nahi alkoholak gure kulturen daukan eraginak generoarekin soilik zerikusia duenik. Baina, uste dut, gehiegikeriek gizon zein emakumeen artean duten ospe onari buruzko –mozkorrei buruz mintzatzerakoan harrotasuna edota barrea islatzen dira aurpegietan– irakurketa feminista bat egin genezakeela

Dagoeneko ondo ikasi du “egiazko gizonak” tragoan edaten dutela.

Nire gizona lagun batek ere beti esan ohi dit, mutilen partetik kontrol galanta sumatzen duela parrandan doanean, eta bi garagardorekin edo kubata bakar batekin soberan duela esaten duenean. Baina, emakumeok kalea eta gaua gureak ere badirela defendatu dugun heinean, eredu horretara moldatu gara, maskulinotasunaren prestigioa edan baitugu. Txikitan, nire amak bi ardo kopa edan eta gero, pixka bat *piripi* zegoela esaten zuenean, gogoan daukat mesprezua sentitzen nuela. Ordea, familiako gizonak bezala *orujoa* –uxuala, alegia– edateko gogoia sentitzen nuen.

Ez dut esan nahi alkoholak gure kulturen daukan eraginak generoarekin soilik zerikusia duenik. Baina, uste dut, gehiegikeriek gizonen zein emakumeen artean duten ospe onari buruzko –mozkorrei buruz mintzatzerakoan harrotasuna edota barrea islatzen dira aurpegietan– irakurketa feminista bat egin genezakeela.

Nikaraguan, lesbianen topaketa batzuetan, auto-zaintza izan zen eztabaida gai-ardatzetako bat, eta harritu ere egin gintuen. Norberak drogekin –alkohola, kafea, medikamentuak barne– duen harremana autokritikoki aztertzea proposatu zuten. “Dependentzia ekonomikoa eta emozionala sendo gaitzetsi ditugu, baina komunera joan ahal izateko zigarro bat erre behar dugula normaltasunez esaten dugu”, zioten.

Azken boladan ekonomia feministak indar handia hartu du, eta korrante horrek zaintza erdigunean jartzearen beharra adierazi du. Ez dut moralista izan nahi eta ez daukat drogen kontrako jarrera zentsorerik. Soilik interesgarria deritzot, dogma guztiak hankaz gora jartzea gustuko dugunok sozializazio eta dibertsio ereduak lotutako arautegiari ere buelta bat ematea. ■